


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko irailak 4, 160. zenbakia


ARKOk argitaratua Udalaren laguntzarekin



**L. I. DE ALEGRIA
'JIMI'**
Goikobalu
Euskadiko lehen
Abesbatza
bihurtzekotan




Nekazaritza biologikoa



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



**Zer
ospatzen da
Arrasaten
urriko
lehengo
ostiralean?**

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

ARKO. Arrasate Komunikabideak-AED
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon

Maketazioa:

Goio Arana

Publizitatea:

Kepa Oliden

Tfnoa: 77 08 15

Kontabilitatea:

Agurtzane Gaintzarain

Erredakzio-kontseilua:

Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero eta Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertsoeskola.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. Ozaeta

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 6.300 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Hirugarren adin berria

Balio beza paradojak, eufemistikoki "hirugarren adin" bezala katalogatutako errealitate bat gai izartat jartzeko, naturala den zerbait normaltasunez eta negatibotasunik gabe aztertzeko: *zahartzaroa*. Guztion hizkuntzan hirugarren adina finkatu da, adin sozial berria dela eta kopuru eta eraginarengatik etorkizuneko gizartean klabea izango dela.

Zientzia eta medikuntzako aurrerapenak hainbestearino urrundu du bizitzaren muga eta gizaki multzo handi honek, ziklo biologiko laburragoetan pentsaezinak ziren beharrak planteatzen ditu.

Adin berria bada, berriak izan beharko dute, aldiberean masibo eta koste handiko bihurtzen den kolektibo horrentzako arreta eta tratamendu era eta sistemak.

Sentsibilitaterik duen komunitate batek ez dauka indiferente geraterik, eta are gutxiago irtenbideak dibinitate probidentzialetik, Estatutik, etorriko direnik espero. Estatua ez da gai, eta ez da eritsiko era, edukin eta denboran ere hain eskaera berezia asetzeraz, izan ere, bitarteko materialez gain, bizitzako azken zati horri ekiteko hurbiltasuna, maitasuna eta ilusioa eskatzen ditu kolektibo horrek. Bizitzako zati horretan, *mundu honetara datorrenari egiten zaion harreraren parekoa* izan behar luke agurrak.

Horregatik, honakoa esaten da Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioaren sarreran: "*Adinekoak tratatze-*

ko erak hobeto definitzen du herri oso bat, haurrak tratatzeko duenak baino; errazagoa da itxaropenarekin harremanak izatea, emaitzekin izatea baino".

Zer da proiektu hau? adin berria, marginazio eta indiferentzian erortzeko arrisku handian dagoena, ikuspegi bitalista eta orokorrez hartzen duen interes handiko egitasmo bat.

Institutu horrek, bere oinarrietan, zahartzearen arazoari aurre egin nahi dio bere era ezberdinetan, adin berri horretako pertsonak aintzat hartuaz, autobalorazioarako, kulturaz gozatzeko, beste batzuri lagunduz pertsona bezala aberasteko aukerak eskainiaz, hitz batean, zentzu aktiboa ematea, gauzen eta eraginkortasunaren gizarteak ezarri dien pasibitateatik ateraz.

Saiolanen inkubatutako ekimen bat da hori, hiru andereñoek zuzendua, bi sendagilek (Marisa Bonzas eta Lorea Garayk) eta ekonomista batek (Ana Bujandak), pertsona helduak integratu eta mugiarazteko abenturari ekin bait diote, bizitzaren azken zatiari aurre egiteko era berriak irekiz.

Deba Garaiko komunitatea, lorpen ekonomiko eta sozialengatik hain entzutetsua dena, arrakasta materialengatik bakarrik ez, pertsona nagusiengana sentsibilitatearengatik ere ezagun izatea espero du hirukote sustatzaileak, pertsona nagusiak izan bait dira komunitate aurreratu bat eraikitzen euren bizitzako onena eman dutenak.

JESUS LARRAÑAGA LIZARRALDE

Memesa
79 42 22



HAURTOKO A

Arrasate Pasealekua 4,
ARRASATE Tfnoa: 79 14 90

NAROKI
Urrezko bitxiak

NAROKI
Opariak, Jostailuak; Liburuak,
Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE Tfnoa: 79 20 47

• Txitxinpe •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



DAMIKAR'T


**Estetika eta ilepaintedzaile
Eskola**

M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

ARAMAIO okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzezlifto, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Ezagutu dezagun benetan Hego Amerika. Basatiak ziren?

Europarrak Ameriketara iritsi zirenean, erabat bestelakoak ziren herri eta kultura ugariarekin egin zuten topo. Konkistatzaileek, harrokeriaren harrokeriaz, indioak gutxietsi egin zituzten eta gizakiak ziren ere, eztabaidan jardun zuten. Uste horrek egundaino iraun du, eta Ameriketako biztanle haiei buruz honako irudia eman digute: indio ezjakin taldea zen, lumaz betea, eta infinitiboz hitzegiten zuena.

Zenbait adibide:

- Cuzcok, inken hiriburuak, 300.000 biztanle izan zituen, eta beharrezko zerbitzu guztiak zituen hiria zen. Tenochtitlan-ek, azteka inperioko hiriburuak, 250.000 inguru. Garai berean, Sevillak, Espainian jende gehien bizi zen hiria izanik, 45.000 biztanle zituen.

- "Chasqui"ak korrikalariak ziren eta Limatik Cuzcora (1000 km. daude bien artean) 4 egunetan eramaten zituzten mezuak. Espainiako korreok, 12 edo 13 egun ematen zituzten zaldiz bide bera egiteko.

- Inkak kirurgian adituak ziren: burua zulatu, gorputz-atalak moztu, ebakuntzak egin, hezurak txertatu... eta horrelakoak ere egiten zituzten. Biztanle gehienek beren behar guztiak beteta zituzten. Bitartean, Espainian gosealdiak izaten ziren.

- Inka gobernariak biztanle guztia erroldatuta zeukaten "quipu"en bidez. Espainian, aldiz, ez zegoen biztanle-errolda fidagarririk.



- Inka nekazariak aldizka auzolanean eginiko lanaren, mita-ren bidez ordaintzen zituzten zergak. Espainiakoek, horrezaz gain, beren uztaren

zati bat eta dirua ematera behartuta zeuden.

- Aztekek giza opariak egiten zituzten jainkoen ohoretan. Opariak, gerra-presoa izaten ziren batipat. Alemanian bakarrik, XVII. mendean, 100.000 "sorgin" erre zituen Inkisizioak.

Bi kulturen arteko harremanak gogorrek direnean, batak bestea menperatu eta gutxietsi egiten du. Menperatzaileak bestea baino gehiago dela uste du, aurreratuagoa, baita kulturaren ere. Espainiarrek 80 urte baino gutxiagotan kolonizatu zuten azteken inperioa, eta 2 milioi biztanle baino gutxiago utzi zuten, lehen 25 milioi zituen herrian. ("Historia económica de España", Vicens Vives).

ARRASATEKO HIRUGARREN MUNDU
TALDEA




IBERDROLA

Bezeroaren onerako egina

Tfnoak: Bezeroak: 12 01 54
Larrialdiak: 12 01 62
Faxa: 12 19 25

Bulegoa: Urkizu Pasealekua, 7 EIBAR

Gogorra egin zaizu oporren amaiera?



Alfonso Zubillaga
(Jubilatua)

Ni ez nabil lanean, jubilatuta nago, eta horregatik ez zait asko kosta oporretatik bueltatzea, ez dugu lanera joan beharrik eta. Lanera joan behar izan dutenek beste kontu bat izango dute.




Montse Lopez
(Langilea)

Ba, zer esango dizut?, guztiz frustrantea izan da benetan. Beti, urtero, urtero, asko kostatzen da lanera bueltatzea.



Begoña Etxebarria
(Langilea)

Ez dut oporrik izan. Orain hartu behar izan ditut oporrak baina derrigorrezkoak, besoa apurtu eta sei hilabeterako baja hartu behar izan dut.



Luis Miguel Gomez
(Langilea)

Lanean ibili naiz, ez dut izan oporrik. Horregatik, ez dut izan salto edo aldaketa hori.



Eduardo Zabala
(Ikaslea)

Bai, aldaketa handia izan da. Gernika eta beste herri batzuetako jaietan ibili naiz eta egun batetik bestera azterketekin hasi naiz.



Tere Egidazu
(Etxekoandrea)

Oraindik ez naiz ohitu, egun gutxi pasa dira eta oporretatik. Ez da hain gogorra. Etxean nago eta jaiki behintzat nahi dudanean egiten naiz.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larnialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaiio	45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZAK

Arrasate	79 71 99
----------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTEARRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------	----------



4

• • •

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "El príncipe de las mareas" (7-9.30).
- Gatzagako jaiak: Nobena Dorletan arratsaldeko 7etan, ondoren gazta, ogia eta ardoarekin afori-merienda eta gauean dantzaldia *Izadi* taldearekin.
- Jubilatuen etxeetan egindako eskularen erakusketaren hasiera, Monterronen, hilaren 13ra arte.
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gauez: Mozos, Bergara.

5

• • •

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Batman vuelve" (5-7.30-10)
- Uribarri-Erguineko jaiak: kontzertua, *The Allnighters* eta *Zakarrak*, gaueko 10etan.
- Gatzagako jaiak: Sokamuturra goizeko 7etan, 9etan herri-krosa eta 12etan *Incansables* txarangaren kalejira. 2.30etan herri bazkaria, arratsaldeko 6etan bertsolariak eta gaueko 12etan dantzaldia *Tturruttaktal*dearekin.
- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturrioz. Gauez: Camacho, Bergara.

6

• • •

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Batman vuelve" (5-7.30-10)
- Gatzagako jaiak: 9etan txirridulari lasterketa, eguerdiko hamabietan meza *Gorosarri* Abesbatzarekin, arratsaldeko 6etan fandango eta arinarin txapelketa eta gaueko 10etatik aurrera dantzaldia *Kaixo* taldearekin.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gauez: Camacho, Bergara.

7

• • •

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Batman vuelve" (7-9.30)
- Gatzagako jaiak: goizeko 11etan trikiritxa, eguerdiko 2etan jubilatuen bazkaria eta omenaldia, arratsaldean umeen jolasak eta gaueko 9etan dantzaldia *Kaixorekin*.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gauez: Estella, Bergara.

8

• • •

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Batman vuelve" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gauez: Mozos, Bergara.

9

• • •

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Egunez: Español, Iturrioz. Gauez: Camacho, Bergara.

10

• • •

OSTEGUNA

- Goikobalu Abesbatzaren entsaiu orokorirekia, Ikastolako aretoan Santa Barbaran, arratsaldeko 8.30etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gauez: Mozos, Bergara.

Jaiak

• Aramaioko Marixekako jaiak

Datorren igandean Marixekako ermitako jaiak ospatuko dira Aramaion. Eguerdiko 12.30etan meza izango da eta ondoren erromeria bazkal ordu arte. Arratsaldez herri kirolak eta baita umeentzako jokuak ere: poniak eta abar. Ondoren erromeriak hartuko du txanda ilundu arte. Aipatzekoa da taberna eta ogitarteko zerbitzua bertan izango dela eta hori dela eta, jende asko hurbiltzen dela bertara egun pasa, paraje ederra bait da.

• Elorrioko jaiak

Elorrioko jaien barruan Ate-neo Arriolakafean, kontzertu eta musika emanaldi batzuk antolatuta dira. Ostiralean gaueko 11etan Amnistiaren Aldeko Bartzordeek antolatutako, *Izurraitz* eta *Hazur Beltzak* taldeak izango dira. Larunbatean gaueko 11etan, Jazz eta blues musika entzuteko aukera ezin hobea izango duzue, *Shot of Blues* taldearekin. Astelehenean, hilak 7, trikitixa izango da Tapia eta Leturiarekin. Asteartean Purmamarka taldearekin andina musika entzuteko aukera izango da.

• Agorreko Andramaixak Arientzan

Asteburu honetan izango dira Aretxabaletako Arientzan Andramaixak. Gaur iluentzako 9etan auzokideek mozorroto eta tantaia jaso eta alkatearen pregoia entzungo dute, eta auzo afariaren ondoren tanborradan joango dira Garaitotik elizondora. Zapatuan, ohizko gauzez gain, arratsaldeko 7.30etan, inguruko auzoetako errepika-joleen lehendabiziko topaketa izango da, eta bakoitzak joaldi bat egingo du. Gauen txarri harripaketa, dantzaldia eta be-



Gatzagako jaiak

Gaurtik asteartera ekintza asko aukeran

Gaur hasi eta datorren astearterarte, Gatzagako jaiak ospatuko dira. Gaur arratsaldeko 6etan etxaleroen jauntienarekin hasiko dira jaiak. 8etan gazta, ogia eta ardoarekin afari merienda izango da txistu soinuak alaiturik eta gaueko 12etan Izadi taldearekin dantzaldia. Aipatzekoa da goizeko 5etan kantzontzilo karrera izango dela eta originalenari 10.000 pezetako saria emango zaiola. Larunbatean goizeko 7etan sokamuturrearekin hasiko dira ekitaldiak. Goiz osoan zehar hainbat ekitaldi izan ondoren, 5.30etan bolo txapelketa izango da, eta arratsaldeko 6etan bertsolariak. Gauetz Tturruttak taldearekin dantzaldia izango da, eta goizeko 5ak arte iraun dutenek txokolatea jateko aukera ere izango dute. Igandeko ekintzak txirindulari lasterketarekin hasiko dira. Eguerdiko 12etan meza santua izango da Gorosari korallarekin. Arratsaldez Arabiako banda eta gauetz Kaixo taldea izango da bertan. Asteartean amaituko dira jaiak eta horretarako trikitixa, herri poteoa eta baita jubilatuen bazkaria ere izango da. Azkenik, gaueko 9etan Kaixo taldeak jarriko du azken dantza jaietan.

rakazopak, gogorik bada. Domekan, amaiera moduan eta azpimarratzeko, tantaibotatzea, eta txokolate jana Martin Kabarrarekin.

Gesaltzan bilduko dira guztiak, baita bertara joan diren partikularrak ere. Ondoren 10etan sarrera ofiziala emango zaio eta 11etan meza nagusia ospatuko da bertan.

Deialdiak

• Arantzazura erromesaldia

Datorren 13an, igandea, Arantzazurako erromesaldia izango da. Nahi duenak, izango du oinez joateko aukera. Autobusak goizeko 8.30etan irtengo dira Garibaitik. Goizeko 9etan

Musika

• Goikobaluko entsaioak

Oporrak pasatu eta Goikobalukoak entsaioetara bueltatuko dira aste honetan, izan ere makina bat konpromezu hartuta dauzkate.

Lehen deialdia koralistei

egin nahi zaie, asteartean kordako entsaioak egingo dira eta, Arrasate Musikalen arratsaldeko 8.30etan. Gainontzekoentzatzita osteguneko 8.30etan izango da, Ikastolako aretoan, Santa Barbaran.

Goikobalukoentsaioei buruz, esan beharra dago hemendik aurrera jendaurrean egingo direla. Horretaz gain, entsaio berriak hasiko direnez, Goikobalukoek kantatzeko interesa duten guztiei jakin arazi nahi diete agertzeko entsaia lekura, ondo baino hobeto hartuak izango direla. "Erdi-lotsaz edo ausartzen ez denik balego, - zioten Goikobalukoek- jakin dezala, gutxienez beste hamaika kantari berri etorriko direla osteguneko entsaioa; beraz, lasai etortzeko, ez dela bakarria izango eta".



Hemendik Gabonetara Goikobaluk honako toki haueetan eskainiko ditu kontzertuak: Bilbo, Eskoriatza, Tolosa, Oñati, Arrasate, Donostia eta Pabean. Horri Castilla-La Mancharen zehar egingo den jira erantsi behar zaio.

Erakusketak

• Jubilatuen lanak

Gaur hasi eta irailaren 13ra arte, Monterroneko erakustokian Arrasateko jubilatuen etxeetan egindako eskulanean erakusketak interesgarri ikusteko aukera izango da. Erakusketaren ordutegia betikoa, eguerdiko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

“ Ez nuke karroza izan nahi, baina... nola aldatu diren gure oporraldiak! Ikaragarritzko jauzia gertatu da gure haurtzaro eta gazte denboratik, inguruko bazterrak txiki geratu zaizkigularik.

San Inazio egunean, Kanpazareko erromeriaz hasten ziren Arrasaten, oraindik hogeitabost urte direla, atsedenerako gure nagusiei egokitzen zitzaizkien udako jai egunak. Eta huraxe genuen urteko erreferentzia behartua, gehienez jota hamabostaldi batez gozatu genuen oporralditxorako.

Gaurregun urrun geratzen dira Kanpazar, Debako hondartza, Txaxeta edo Epeleko errekatxoak,... Bidai ajentziek ez dute toki horietarako eskaintzarik egiten. Xamurrago gertatzen zaigu Bali, Kenia, Peru edo Indiako Benaresera iristea, munduan zehar turistak barreiatuko dituen makroturismoaren uhinean sartuta”.

(Josemari Velez de Mendizabalek Egunkarian)

“ Labana zorrotz sartzen du Atxagak: “diru publikoaz ordaindutako aldizkariak zaborra hutsa dira”. Baina horrela dela demostratzeko, ez datu eta argumenturik ematen. Horretxek dezepzionatu nau pittin bat. Nik ez dakit praktikan hala den hala ez den; bai, ordea, teorian ez daukala horrela zertan izanik. Publikazio edo obra bat berez ona baldin bada, subentzio publikoa gorabehera, gero ere ez da txarra izango. Aditzera dudanez, Arrasate Press eta besteren edo bestek ere ez dute hain produktu txarrak izan behar, nahiz eta %100a diru publikoz eta enpresen publizitateari esker finantziatuta egon. Egunkaria ere gogor dabil diru publikoaren atzetik; ez dut pentsatzen ‘zaborra’ izateko asmotan ibiliko denik”.

(Rufino Iraolak El Diario Vascon)

Zergatik ekin diozue grebari?

Zergen bidez gasoilaren prezioa igo dutenez, garraiatu ahal izateko baimena berritzeko zertifikatuak exijitu dizkigutenez, garraio sektoreari begira aurrez zituzten aurrekontuetan murrizketa handiak egin dituztenez eta, batez ere, 1990.eko grebaren ondoren gobernuak agindutakoa bete ez duenez, grebara jotzera erabaki genuen.

Gure eskariak zortzi puntutan oinarritzen dira: 1) Ekonomia, Ondasun, Garraio eta Obra Publikoetako Ministaritzarekin biltzea, lehen onartutakoak betetzeko. 2) Garraiolariari, Aseguru Soziala ordaintzen ez dugunez, jasaten dugun presio fiskala onartzea, BEZ zerga hiruhilabetero itzultzea eta gasoilaren salneurria finkatzea. 3) Gaixotasun profesionalak errekonozitu eta jubilazioa aurreratu ahal izatea. 4) Garraioan eramatzen dena kargatzen den une beretik begiratzeko, ez diruz zigortzeko zer eraman agintzeko. 5) Garraiolari legalei ezartzen zaizkien neurri fiskalak, ilegalen arazoa konpondu arte, bertan behera uztea. 6) Tarifen defentsa, batez ere garraiatzen den tokian kobratzeko eta eskuan kobratzeko. 7) Errepidez merkantzien garraioaren sektorea hobetzeko plana behar bezala bultzatu, beharrezko aurrekontuaz, azkar eta ondo egin dadin. 8) Garraio astuna eta arinaren egoera pareko bihurtu.

Hori baino gehiago ere eskatzen dugu, baina oinarritzekoak zortzi puntu hoiek dira. Onartzen badizkigute, ikusiko dugu zer egin, baina printzipioz greba utziko genuke, hemen gaudenok nahi dugun bakarra, lana beharrezko baldintzetan egitea da eta.

KEPA OTXOA,
SINTRAGIKO ORDEZKARIA.

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko ateak
Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92
ARRASATE

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Olarte, 30 Tfnoa: 79 77 11. ARRASATE


IRATI
TABERNA

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFATEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



Arrasateko Ingurugiro Eskolan prestatzeko

LANKIDETZA-BEKA BATERAKO DEIALDIA

Helburua

Bekadunari, Arrasateko Ingurugiro Eskolan lankidetzan arituz, ingurugiro gaietan prestatu dadin aukera ematea da.

Eskabideetarako epea eta helbidea

Eskabideak irailaren 7a arte aurkeztu daitezke Udaleko Hezkuntza Sailean

Deialdiaren oinarriak jasotzeko.

Arrasateko Udaleko Hezkuntza Sailean, uztailaren 22tik aurrera.



ARRASATEKO UDALA

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak urtero bezala dirulaguntzak eskaintzen dizkie udako ikastaro trinkoetan euskara ikasten aritu diren arrasatearrei.

Eskaerak irailaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Euskara Zerbitzura.

▣ **Arrasate-Bergara barienea**

Uztaileko azken astean Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasate-Bergara barienea eraikitzeko behar den azken proiektuaren onarpena bete zuen. Eraikitzeko enpresa arduradunak oinarri tekniko hoiek bete beharko ditu. Era berean Ospitalaren inguruan eta Bergarara doazen kotxeentzat, beste iteerra bat egitea ere espero da.

▣ **Beka Ingurugiro Eskolarako**

Ingurugiro gaitan pertsona bat prestatzeko helburuarekin Udalak Ingurugiro Eskolan lan egiteko beka bat emango du. Beka jasotzen duenak, Udalako Ingurugiro Eskolan egunero lau orduz lan egin beharko du, hileroko 57.000 PTako soldatarekin. Beka eskatzeko epea irailaren 6an bukatzen da eta magisteritza egin duen edonork dauka eskatzeko aukera.

ONGIETORRIA JAIOPERRIEI

Ane Armendariz Lozano, abuztuaren 1ean.
Naiara Suarez Bouzon, 6an.
Ariane Garcia Oncala, 11n.
Pello Heriz Iturbe, 20an.
Lorea Chuch Iturbe, 24ean.
Jon de Andres Garai, 26an.
Ane Aspe Etxabe, 28an.
Luken Zubizarreta Barrutia, 28an.


ZORIONAK EZKONBERRIEI

Juan Carlos Errasti Herrarte & M^a Gema Jauregi Arana. Uztailaren 24ean. Elizaz.
Juan Otxoa Ojea & M^a Jose Agirreurreta Bolinaga. Uztailaren 25ean. Elizaz.
Juan Luis Garai Barandiaran & M^a Isabel Urzelai Corral. Uztailaren 29an. Elizaz.
Isidro Elduaen Rey & M^a Monserrat Roldan Robledo. Uztailaren 30ean. Zibilez.
Jose Orlando Perez Rivas & Silvia Lumberas Vazquez. Uztailaren 31n. Zibilez.
Juan Antonio Yarza & M^a Pilar Prellezo Agirrebengoa. Uztailaren 31an. Zibilez.
Pedro Ugarte Agiriano & Ana Isabel Presas Rincon. Uztailaren 31n. Zibilez.
Nikolas Irigorri Martin & Luz Mercedes Arias Martinez. Uztailaren 31n. Zibilez.
Jose Luis Hernandez Indurain & M^a Clarisa Beltran de Gebara Martinez. Abuztuaren 2an. Zibilez.

Txandaka

ARRASATEKO EUSKARAREN AZTERKETA

Arrasateko Euskararen Azterketa honen helbururik nagusia zera da: Mondragoe aldean erabiltzen den euskararen ezaugarri nagusienak biltzea, hots, gure hizkuntzak Arrasaten duen aldaeraren oinarritzko elementuen "corpus" bat osatzea.



Jerardo Elortza (*)

Hartarako lehenengo egin dudana orain arte mondragoeraz eta inguruko euskalkietan burututako lanak batzea eta gai honi buruzko bibliografia biltzea izan da: bertako testuak, batzuetan benetan garrantzitsuak ditugu, kanta zaharrei dagokien sailean batez ere; R. M. Azkue, J. M. Barandiaran eta bestek jasotako ipuin eta istorio zaharretan ere aurki daitezke arrasateraz moldatutakoak; azken aldi honetan argitaratu direnen artean, berriz, E. Plazaola eta J. M. Garaik aldizkari honetan "Famauen ahotik" izeneko sailean kaleratutakoak dira aipagarrienak.

Lexikoari dagokionez ere, iturri klasikoetatik edan dut batik bat, Azkueren hiztegiaren hustuketa eginaz. Dena den, Leintz eta inguruetako herrietako berbak ere jaso dira Don Resuren hiztegitik, era honetan eskualde mailako lexikoaren ikuspegia izatea lortzen delarik.

Morfologia aztertzeke, lekukoengana jo dut eta haien ahotik jaso ditut zuzenean Arrasateko aditz-formak, aditz-izen eta aspektua, deklinabidea, etab. Beste zenbait sail ere jorratu da: hala nola, fonetika, azen-tua, testuen grabaketak eta transkribaketak, etab.

Batez ere pertsona zaharrekin eta auzoetan ibili naizenez, jasotako datuei batzuetan kutsu arkaiko samarra dariela esan dezake norbaitek, eta ez du arrazoi faltarik

izango. Hala ere, forma zahar hauek erabat galdu baino lehenago jaso gura izan dut, komeni baldin bada, berauek berreskuratzeko aukera, gutxienez, izan dezagun. Badakit, bestalde, auzoetatik kalera ezezik, belaunaldien artean ere aldeak nabarmenak izaten direna halako kasuetan. Beraz, ñabardura guzti hauek kontutan hartu beharko dira, orain bildutako

datuok argitaratzea pentsatzen denean.

Baina publikatu aurretik, biziki eskertuko nuke orain arte moldatutakoari buruzko ohar eta kritikak egingo balira, honelako bilketa batetan bariante asko egoten direla ondotxo konturatzen naiz eta. Eta edozeinek hartarako interesik izango balu, pozik eskuratuko nioke nik batutako materiala.

Nire asmoa ez da izan mondragoetarren euskarari buruzko lan normatibo bat egitea; oharrok jaso eta hutsuneok bete ondoren, ikusi beharko da materiale hauek non, noiz, nola eta zenbateraino erabiltzea komeni den. Eginkizun hori, ordea, ez dut uste niri bakarrik dagokidanik, talde zabalago bati baizik: eskola, euskaltegi, komunikabide, idazle eta abarri, alegia.

Amaitzeko esan, lan hau dela eta, jende mordo batekin nagoela zorretan; hemen toki faltaz denen izenak agerraraztea ezinezkoa baldin bazait ere, ez ditut inolaz ere ahaztu eta saiaturko naiz banan-banan guztiak eskerrak ematen. Dena den, oraingoan bi salbuespen egin nahi nuke: Arrasateko Udala batetik, ikerketa hau burutu ahal izateko diru-laguntza eman didalako, eta Udala auzoko Luzia Otadui andrea, nire galdera aspergarriek hainbat aste eta hila-betetan erantzuteko pazientzia izan duelako.

(*) IRAKASLEA




PAZI-OLA SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 94

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak, Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



Jon Salaberrik gai interesgarri askori buruz hitz egin zuen

HIES Ekimena taldeko ekintzak

Laster bazkide kanpainari emango dio hasiera

Hemendik aurrera egin behar dituzten ekintzen berri eman asmoz, asteazken goizean HIES Ekimena taldearen aretoan prentsaurrekoa burutu zen. Prentsaurrekoan adierazitakoan sartu baino lehen, aipagarria da HIES Ekimena taldeak dagoeneko baduela telefona: 79 26 99 zenbakiduna eta astelehen, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 5etatik 9etara bertan norbait izango dela.

HIES Ekimena taldeak datorren urterako dituen ekintzen artean, behar bada aipagarrienak sexuari buruzko ikastaroak izan daitezke. Ikastaro horiek, otsailean hasiko dira seguruen eta hiru motatakoak izango dira: irakasleei zuzendua bata, gurasoei bestea eta gazteei zuzendua azkena. Batz bestea, ikastaro hauek 25-30 ordutako iraupena izango dute eta helburuak, sexuari buruzko informazio ona eskaini eta gaiari buruz arazo barik hitz egitea izango lirateke.

Ikastaro hauek 1.200.000 PTAko aurrekontua dute guztira, 300.000 HIES Ekimena taldeak ordainduko ditu eta gainontzekoa Udalak ordaintzea lortu nahi litzateke.

Horretaz aparte, laster bazkide kanpainari ekingo dio HIES Ekimena taldeak, jendeak nolabait HIES-aren aurkako kanpainan parte har dezan eta urteroko diru-sarrera finakoak ziurtatzeko. Taldeko bazkide izan nahi duenak urtero gutxienez 2.000 PTA ordaindu beharko ditu, borondatez gehiago eman nahi duenak horretarako aukera izango badu ere. Diru-kopuru horren ordainean, bazkide bakoitzari urtean bi aldiz taldearen aldizkaria bidaliko zaio eta baita hainbat informazio eman ere.

Azkenik, aipagarria da taldearen aldeko txapa eta txiskeroak salgai jarriko direla tabernetan eta kondoiak gazteen eskurago egon daitezen, hamar pezeta-tan jarriko dituztela salgai.

Usteak uste

Somaliarra banintz eta gosez hiltzen banengo, ni baino ahalmen gutxiagoz hil diren milaka pertsonen gorputzak jango nituzke. Oihaneko lege zaharrera itzuliko nintzateke eta gosez ez hiltzearen, hiltzen duen leoiaren pareko basati bihurtuko nintzateke, basati baina bizirik. Andeetako abenturaren bigarren zatia errepikapena izango litzateke, hildakoak bizia emateko direla pentsatu eta lasaitasun handiz jango nituzke, Vaticano edo mundu zuriaren bedinkazioari itxaron barik.

Baina, zorionez edo zoritxarrez, ez naiz Somaliarra, eta ia egunero afalosteko betekadaren ondoren telebista higuin garriaren aurrean jarri eta gero, nire pareko diren mutil edo neska gazteak hezurretaraino flakaturik ikusten ditut, edoeta begizulo beltz-handiz aurpegira begiratzen didaten irrifarrak gabeko umeak, eta baita hirugarren munduko bizi oso bateko oztopoei aurre egin dieten agure zaharrak ere, soinekoari eutsi ezinik... eta konturatzen naiz ez naizela irudi horiek ikusi, eta bere buruari "hau nolabait konpondu behar dok" esaten dion bakarra izango, sabela ondo betetako milioika izango garelara eta hori esateaz gain, ezer ez dugula egiten. Gosez ez hiltzearen, ondoko hilotza jango lukeen somaliarra baino basatiago sentitzen naiz horrelakoetan.

BEÑARDO KORTABARRIA

URONDO
elektrizitatea



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39


Abuztua lau hitzetan

Beharbada bitxiena, astorearen agerpena

Azoka eraberritzeko lanek ireki zuten aurtengo abuztuko berrien zerrenda; ondorioz, azokako saltzaileek Sebero Altubera joan behar izan zuten salmentak egitera; hori ere berri bihurtu zen, eta hala jarraitzen du. Ia aldi berean, Gurera-ko eraikuntza zaharra botatzeko lanci hasiera eman zitzaion, eta baita bukaera ere, bi edo hiru egunetan eta inolako problema barik burutu ziren lanci.

Abuztuaren Sean Ertzan-tzak, droga eramatearren, bi gazte atxilotu zituen autoarekin istripua izan eta gero. Egun batzutura Estibaliz Ormaetxea margolari arrasatearrak Zarautzen erakusketa ireki zuela jakin zuten herritarrek. Gauzak jakitez gain, herritarrek protagonista ere bihurtu ziren, eta Santamaina eta Hondarribia kaleetako auzokideek, auzorako bidea moztu zieten, beren haserre agertu zuten jendaurrera kaleratutako ohar baten bidez.

Gazte batek, Maala kalean dagoen Okendo kirol denda kristala hautsi eta kamiseta bat lapurtu zuen; hurrengo egunean, hilaren 11n bere burua entregatu zuen Ertzaindegian; Ertzainak Bergarako Epaitegira eramango zuen. Egun bat berandua, Murun Udaltzainen emisora lapurtu eta ATBkoa hondatu zutela zabaldu zen; ondorioz, Arrasate eta Aretxabaletako Udaltzainek nahiko lan izan zuten irratiz hitz egiteko.



Azokako obrak seguruen laster bukatuko dira



Gurera zaharra botatzeko ez zuten arazorik izan makina berriek

Urtero bezala, abuztuaren 13an 50en bat arrasatearrek autobusa hartu eta ibilbide turistikoa egin zuten, Zarautz, Lezo eta Hondarribia aldetik. Azkenik, eta behar bada hileko berririk interesgarriena, astorearen agerpena izan zen, harrapatu, identifikatu eta gero Udalaitz inguruan askatu zutena. Hegaztiez dakitenek adierazitakoaren arabera, Gipuzkoan horrelakorik agertzea oso gauza arraroa zen; hortik berriaren garrantzia.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko alda, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 **GASTEIZ**

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



Eguraldiak laguntzen badu, ekintza gehienak kanpoan burutuko dira.

Udalekuak astelehenetik aurrera

5, 6 eta 7 urtetako umeek hartuko dute parte

Astelehenean hasiko dira iraileko Udalekutxoak, hilaren 18a arteko iraupenarekin talde batzuk eta 25a artekoarekin gainontzekoak. Eskolaurreko hirugarren maila eta OHOKo lehen eta bigarren mailako 80ren bat umeek hartuko dute parte lehen aldiz AEDk antolatzen dituen Iraileko Udalekutxoetan. Orain arte, Iraileko Udalekutxoak Ikastolaren ardurapean egin izan dira eta Ikastolako umeek parte hartu ahal izan dute bakarrik, baina aurten AEDk antolatu dituenek, esparrua zabaldu egin da eta herriko ikastetxe guztietako 5, 6

eta 7 urteko umeek izango dute Udalekutxoetan izateko aukera.

Denboraren arabera, Udalekutxoaren matrikulaldiak 3.000 eta 4.000 PTAko kostua izan du. Dena dela, Udalari dirulaguntza eskatu zaio eta erantzuna baiezkoa bada, ordaindutakoaren zati bat itzultzeko asmoa dago.

Astelehenean, Udalekutxoei hasiera emateko, arduradunak eta ume guztiak arratsaldeko 3etan bilduko dira AEDn. Hortik abiatuko dira ekintzak, gehienak kanpoan, behintzat eguraldiak laguntzen badu.

Bi arrasatear hilik auto istripuan

Pasa den astelehenean Burgos-en izandako auto-istripu baten ondorioz, 52 urtetako Felipe Caballerok eta 13 urtetako bere alaba María Isabelek bizia galdu zuten. Istripua gertatu zenean, Felipe Caballeroren emaztea ere autoan zihoan eta zaurituta gertatu zenez Burgos-eko ospitale batetara eramán zuten. Istripua eragin zuten arrazoiak ez dira ezagutzen, autoak kamioi baten kontra jo zuela jakin da bakarrik. Auto istripuan hildako alabaz gain, Felipe Caballerok beste hiru seme zituen. Hildako biak asteartean enterratu zituzten euren jaioterrian, Zamoran.

Azoka plaza hilaren 21erako

Azoka plazako postu fijoak martxan gaur jarri badira ere, merkatuaren iharduera normala 21etik aurrera egingo da, ordurako lanak bukatuta izatea espero da eta. Salmenta postuez gain, albaitariarentzeko tokia ere jarriko da, salgaien kontrolak bertan egin daitezten.

Umezaintza martxan

Ikastetxe gehienetan oraindik ez dira lanean hasi, eta Umezaintzakoak izango dira lehenak. Iaz matrikulatuta zudenak astelehenean joan beharko duta eta aurten lehenengoz matrikulatu direnak, berriz, asteazkenean, betiko orduan. Aurten guztira 205 ume joango dira Umezaintzara, horietatik 60 berriak eta 9 seaskakoak. Guzti horientzat 13 gela, 14 irakasle eta 6 laguntzaile.

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA Tfnoa: 79 80 90

Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE Tfnoa: 79 97 86

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57

ALE

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak


txapela buruan...



● **Iban Lopez de Munain, Txos Azurmendi** eta **Pili Negro** mondragoetarrak New Yorken izan dira oporretan. Manhattanen ateratako argazkia utzi digute oporraldie buruzko orri honetan argitaratzeko. New York, New York...



● Oporrak Olinpiadak ikusten ezezik, Olinpiadetan parte hartzen izan denik ere bada, **Rafa Axpe** esaterako. Bere eskopeta hartu eta uztailaren bukaera aldera aramaioarra Barzelonara joan zitzaigun. Kirol arloan Rafak ezer gutxi egin zuen, baina Olinpiadetan parte hartzea ez da edozeinek egin dezakeen gauza eta seguruen oroimen polita gordeko du. Hor duzue argazkia tiro taldeko beste partaide batzurekin.



● Ganbeluan ibiltzeko aukera ere izaten da Egipto alde horretan, eta **Izar Loiti** eta **Zorione Aranak** aprobetxatu zuten aukera. Norbaitek sinistuko ez zien beldurrez, erretratu atera. Bai, bai, sinisten dugu!

GOIKOBALU ABESBATZAK

**KANTOREAK BEHAR DITU
BERE EGOITZARAKO.**

Entsaio irekiak ostegunero
S. F. Xabier ikastolako aretoan 20.30etan.



**ZURE ABESBATZAK
BEHAR ZAITU!!!**

**Neska-mutilok
apunta zaitetze!!!**



**Alkoholarekin
arazoak dauzkazu?**


**Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!**

Alkoholiko Anonimoak
3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

● **Iñaki, Patxi, Sebastian** eta **Jon Lasa** eta erdian **Julio Orobengoa** dira argazkikoak eta **Eli Alzola**rekin batera, Santiagobidea egin zuten bizikletaz. Argazkian Obradoiro plazan ikusten ditugu, abuztuaren 6an iritsi zirenean. 16 urte dira Lasatarrek udan horrelako ibilaldiren bat egiten dutela, eta aurten ere, lau egunetako bidean anekdota ugari. Irten aurretik, hori bai, urtero Dorletako Amari eskaintza egiten diote Gatzagan. Zorionak eta hasi hurrengo prestatzen!



● Argazkikoak Euskal Udalekuetan izan dira, Goñin. Besterik badirudi ere, begiraleak dira, pasterala antzezten. Bailarako ordenkaritza bertan: **Sarasua** anaiak, **Izarzelaia**, **Gaxti**, **Aitziber Retolaza**... A zer kuadrila!



● Beste batzuk Auzolandegiak aukeratu dituzte. Eskumako biak **Mario** eta **Eduardo Campo** dira, eta **Esteban Mondragon** ere eurekin joan zen. Oviedon egin zuten lan, Santiago bidea garbitzen, 20 egunez.

DUO DISEÑO

- OBRAK
- BARRUAK
- BULEGO-ALTZARIAK
- PROIEKTUAK
- OSAGARRIAK

Iturriotz, 21
Tfnoak: 79 28 86 / 77 14 94
ARRASATE

**ERAKUSKETAREN
ALDAKETA
DELA ETA,
PREZIO BEREZIAK
IRAILETIK AURRERA.**



Iñaxio Garro eta **Arantza Lejarraga** ere atzerrian izan dira, beste asko bezala. Balin, hain zuzen. Irla hartako ume batzuekin atera zuten argazkian ikusten ditugu, herri txiki batetan, umeen etxeko tenpluan. Jendea atsegina, oso irekia, turismorako oso ondo prestaturiko lekuak eta herrialde bezala paradisu hutsa ezagutu ei dute.




Juanito Saizarrek familia Marokora eramán zuten eta normala denez, basamortua bisitatu zuten. Han zer aurkituko? eta Tuareg bat gamelu eta guzti. Hor dituzue argazkian eta ezkerretik eskumara: **Nerea Saizar**, **Rosamari Elortza** Juanitoren emaztea eta **Iker Saizar**. Irriparez dagoen gamelua izenik ezin izan dugu jakin.



Badira urte guztian oporlekuetan bizi diren mondragoetarrak ere. **Jose Antonio Bengoa Arregik**, Muxibar baserriko semeak, urte asko darama herritik kanpo, Bartzelonako Calella de la Costan, baina hala ere, beti Arrasate buruan eta bihotzean. **Paquitak** eta biek hartu gintuzten etxean, eta nola hartu gainera! Astero jasotzen du Arrasate Press etxean eta gustora irakurtzen ei du herriko berri. Gorantziak eta besarkada bat herritar guztiei!

Postal lehiaketa aurrera!


Uste baino postal gehiago iritsi zaizkigu Arrasate Press-eko erredakziora, eta jakin badakigu gehiago ere iristear daude. Beraz, postal jatorrena zein den erabaki aurretik, Correos-etako langileei beste astebete emango diegu.



Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE
KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5
Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

ENARA 
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate




beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

L.I. Ruiz de Alegria, "Jimmy"

Goikobalu Euskadiko lehen Abesbatza bihurtzekotan



Luis Ignacio Ruiz de Alegria, "Jimmy" txikitatik. Donostia-rra jaiotzez eta

bizitzez, Bilbon ekonomilari ikasketak egindakoa eta gaztetan uda pare bat hemen pasa zituena. Txirrindulari bezala eman zituen pauso batzuk, baina denbora libre gehiena kantagintzara zuzentzen zuenez, hortik bideratu zuen bere zaletasun handiena. Azken urteotan Goikobalu Abesbatza zuzendu du.

— Zure hasierak?

— Donostiako San Ignacio Abesbatzan hasi nintzen kantatzen eta denbora gutxian Orfeoirako saltoa egin nuen, hamar urtez egon nintzen han. 20 urterekin, Orfeoian bakarlariekin estreinaldia egin nuen, Bach-en jaialdi batean eta kantari profesionalen ondoan.

— Zer dela eta Goikobaluko zuzendari?

— Proposamena egin zidaten, eta gauzak serio samar egiteko asmoa nabaritu nuen, onartu egin nuen.

— Hiru urte pasa dira ordutik, balantzea?

— Lan handia egin dugu urte hauetan eta geure kontzertuak eskaintzeaz gain, aurten izugarritzako saltoa eman genuen Donostiako Orfeoia Logroñon kontzertua eskaini ezinean, ordezkatzeko esanez gugana etorri zirenean. Horrek asko esan nahi du gure alde, ordutik beste pare bat aldiz elkarrekin kantatu dugu Orfeoiaekin, azkena Donostian Tourraren irteeran, nahiz eta ofizialki bakarrik Donostiako Orfeoiaren izena jarri. Beraz, garbi utzi behar da han bi taldeen artean kantatu genuela. Pabe-n ere, Donostiako Orfeoia deituta hartu behar dugu parte, eurak ezin

dira joan eta.

Kalitate zentzu berean, Poloniako orkestra profesional batekin batera iharduteko konpromezua hartuta dugu, Madrileko "Arte 4" taldeak kontratatuta Castilla-La Manchatik jira bat egin eta, garrantzitsuena, Donostiako Victoria Eugenia antzokian kontzertua eskaini behar dugu. Etengabeko hobekuntza izan da.

— Musika gogoa Goikobalun asetzen duzu?

— Musikari dagokionez, bi ekintza mota burutzen ditut: alde batetik Abesbatzen Zuzendaritza, orain Goiko-

balun oinarritua; bestetik kantari lana, *Capilla Peñaflorida* taldeko eta *Madrileko Musikaren aldeko Elkarteko* bakarlariekin bezala. Horretaz gain, deitzen nauten hainbat tokitan ere, gustora eskaintzen dut kantari lana, Sarriko eta Eskoriatzako abesbatzen zuzendaria ere izan nintzen... beti zaletasun bezala, eguneroko ogia ateratzeko ekonomilari lana egin behar izaten dut eta.

— Goikobalu jende berraren bila ari da, zergatik?

— Gaur egun, kopuruari dagokionez, Goikobalu Euskadiko bigarren abesbatza da,

baina nire asmoa lehena egitea da. Arrasaten musika ikasi duen asko dago, kantatzeko gaitasuna duen jende asko... baina ez dakit jende guzti hori nola geureganatu. Horregatik nahi dut 150 ahotseko abesbatza handia egitea.

— Lortzen ez baduzu, gelditu edo alde egingo duzu?

— Kanpotik edo barrutik abesbatza garatzeko ahaleginak egingo ditut, nire nahiak bete edo ez. Nire asmoa norbaitek bidali arte, hemen geratzea da. Dena den, Arrasaten badago zuzendariaren tokia hartu dezakeen nahi adina jende eta jende horri prestakuntza egokia ematea komeni dela iruditzen zait, edozer gauza gerta daiteke eta, baina nik aurrera egiteko asmoa daukat.

— Gogor fama daukazu...

— Lan serioa egin dugu eta igande bat edo bestetan lan egin dugu, baina lan erritmoa normala da eta giroa jatorra. Goikobalun sartzeak ez du esan nahi izugarritzako ardura piloa hartzen denik.

— Ez dizute esan Goikobaluk baju kantatzen duenik?

— Abesbatzan jende gaztea eta heldua dago. Ahotsa garatzeko orduan, gazte eta emakumeena grabe egitera bideratu dut eguneroko lana eta helduena, berriz, bestaldera, freno zapaltzen, horrekin musikalitate handiagoa lortzen dela uste dut eta. Dena dela horiek lehengo kontuak dira, ez oraingoak; orain indar handiagoz kantatzen dugu.

— Zuzendariaren mugimenduen beharrik badago?

— Kantariak begiratu egin behar dio, bestela ezin esan zuzendaria lan ona egiten ari denik, zuzendariak transmititu egin behar du eta. Horretarako inportantea da musika heziketa izatea.

— **“Kantatzeko gaitasuna duen jende asko dago hemen, baina ez dakit nola geureganatu”**

Nekazaritza biologikoa edo naturaren oreka

Gizakia sortu eta milaka urtetara lurra lantzen ikasi zuenetik, nekazaritzak aurrera egin du etengabe. Industriaren teknikak nekazaritzan ezarri dira eta zenbait nekazal iharduera, produkzioaren helburuaz iharduera industrial bihurtu dira. Egoera horrek lurrari kalte egiten diola pentsatzen duenik bada, eta nekazaritza biologiko edo naturaren nekazaritzaren alternatiba planteiatzen duenik.

Zer da nekazaritza biologikoa?

Nekazaritza biologikoa edo naturaren nekazaritza zer den ulertzeko, ekologiara jo beharra dago, nekazaritza biologikoa osotasunaren batasuna bezala ulertzen bait da, lurra, landare eta animalien arteko erlazioak garrantzi handia hartzen duten eremua. "Gaur egungo nekazaritza industrialak -dio Jabi Tramonek- natura ustiatzen du ahalik eta irabazpen handiena epe laburrean lortzeko. Horretarako teknika antinaturalak erabiltzen ditu: ongarririkimikoak, abereen hazkuntza industrialak, belarhilkariak, plagizidakimikoak... Ondorioz, nekazal ekosistemaren espezie onuragarriak gutxituz doaz, ekosistemaren oreka arri-

kuan jarri arte. Nekazaritza industrialak energiagastu izugarria dakar, baliabide fosilak eta naturalak betirako hondatzen dira eta. Gainera,


giza osasuna eta kutsadura sortzen du, inguru naturalaren kontserbazioa arriskuan jartzen duena. Guzti horrek, elikagaien kalitate naturala

eta paisaiaren edertasuna galtzea eragiten du".

Nekazaritza biologikoren aldeko apostua egin dutenen ustez, 2. mundu gerrara arte, nekazaritza eta lurraren arteko lotura nahiko armonikoa zen. Gerra ostean eta batez ere azken 30 urteotan izugarriko aurrerapena etorri omen da, lurrari kalte handiak eraginez.

Aipatutakoaren aurrean kokatu behar da nekazaritza biologikoren sorkuntza, naturarekiko begirunea gordez, kalitate naturalezko elikagaien produkzio nahikoa proposatzen duena. Hori lortzeko, nekazaritza biologikoak hiru baliabide edo teknika erabiltzen ditu: lur-langintza, ongarriketeta landareen eritasunak.

"Lurra lantzeko teknika ez-erasokorrak erabiltzea proposatzen dugu, izaki bizidunen eta lurraren arteko oreka apurtuko ez duten teknikek, makinek eta abono kimikoek lurra pobretzen dute eta. Lurrari, berez duen mantentzen lagundu behar zaio, horrela aberastuko da. Ongarriketaz esan behar da,



Landareen txandaketari berebiziko garrantzia ematen dio nekazaritza biologikoak.

benetan garrantzitsu, berak dituen materia organikoak direla, beraz ongarri mineral naturalak eta ongarri berdeak erabili behar dira. Azkenik, landareen eritasunei buruz, aipagarria da natura mantentzeko armarik onena dibertsitatea dela, kultibo desberdinak; zentzu horretan ulertzen da landareen txandaketa eta elkarke-ta, izurrien erasoak gutxitu eta lurraren aberastasuna mantentzen dute eta”.

Gaizki irten duen esperientzia bat



Naturak emaitzak berez ematen baditu ere, zainketa berezia eskatzen du.

Nekazaritza biologikoaren teoria zen orain artekoa, Jabi Tramonek, teoria hori praktikan jartzen saiatu den mutilak azalduta, gaizki atera bazaio ere. “22 urterekin naturarekin orekatuta bizi behar nuela erabaki nuen, Tafalla eta Katalunian

ibili nintzen, hango granje-tan eta erreposteria integrala ere ikasi nuen; beste denboraldi bat Guatemalan pasa nuen, hango jornaleroen esperientziaz jabetzen. Handik etorri eta, baserritarra naizenez, baserri inguruan beste lagun bategaz, teknika horiek

praktikan jartzen hasi nintzen, barazkigintzatik bizi nahi nuela erabaki nuen eta. Iaz porru biologikoak ekoizten pasa nuen urte osoa, 100.000 porruko uzta izan nuen, baina konturatu naiz gaur egun dauden baldintzekin horrela bizi izatea ezi-

nezkoa dela; gainera, aspaldian gerriko minez nabil eta utzi egin behar izan dut”.

Jabik dioenez, gaur egun nekazaritza biologikoak aurrera atera ahal izateko gutxienezko hiru baldintza behar ditu: lurra, instalakuntzak eta jakinduria. “Hemen aldatzik gabeko lur gutxi dago, instalakuntzak karestiak dira eta gaiari buruz ikasketak dituen gutxi da. Instituzioetara joan nintzen laguntza eske, Bergarako Agrariara joan nintzen, ideia polita iruditu zitzaien eta ikastaroak egin nituen, baina alperrik. Dirulaguntzak jasotzeko, norberak autonomo izan behar du eta diru-sarrerak izan; hau da, finkatuta daudenei ematen dizkiote laguntzak eta ez hutsetik hasi behar dugunoi. Ez dago interes sozial eta politikorik, etekinak ateratzea besterik ez dute nahi”.

Naturzale baten zenbait esaldi

- Gizartea aurrera doa eta nekazaritza geldirik, denon ingurugiro eta gizakiaren osasunerako beharrezko den nekazaritza, alegia.
 - Jendeak, instituzioek eta baserritarrok daramagun bidea aldatu egin behar dugu.
 - Nekazaritzak aukera ugari dauzka lanpostuak sortu eta ingurugiroa zaintzeko, paisaiaren edertasuna barne.
 - Nekazaritza gaurkotzeko alternatibak eman behar dira.
 - Zerbait egiteko ordua da, produktu biologikoen kooperatibak sortzekoa, baina horretarako kontsumitzaile, denda eta ekoizleak kontzientziatu behar dira.
 - Taberna eta jatetxe alternatiboak sortu behar dira, baita ingurugiro heziketan sakondu ere, partxeoak alde batera utzita.
 - Nekazaritza biologikoaren helburua, produktuen kalitatea da; kalitatea aldarrikatu behar dugu; bestela, ezin dugu kompetentziarik egin nekazaritza kimikoaz.

**Basabe
jatetxea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoak: 79 91 84
77 07 94

Altzariak
Diseinua
Apainketa
**M
ARENAZA**

Bizkaia, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

Aretxabaletak irabazi Arrasateko torneoa

Penaltiek erabaki zuten neurketa aspergarri samarra

Azkenean penaltiek erabaki zuten Arrasateko torneoaren irabazlea, Aretxabaleta taldea hain zuten ere. Penaltietara iritsi aurretik, partidu aspergarria ikusteko aukera izan zuten Atxabalpen bildutako ikusleek, gutxi egia esan.

Partiduari arratsaldeko 6.30etan eman zitzaion hasiera, eguraldi ederrez eta, itxuraz behintzat, ezin hobeto dagoen Atxabalpeko zelai gainean. Hasiera hasieratik parekotasun handia nabaritu zen bi taldeen artean, eta teknika aldetik arrasatearrak hobeto bazebiltzan ere, gogoz eta indarrez atxabaltarrak gehiago ziren; beraz, gauzak nahiko parean.

Jokoa ez zen oso ona eta atezainek ez zuten lan gehiegirik, baloia denbora gehienean zelai-erdi inguruan mugitu bait zen. Lehenzatiari amaiera emateko denbora gutxi falta zela, atxabaltarrak izan zuten aukera bakarrenetarikoa bat aprobeztatzen jakin zuten eta Agirrek lehen gola lortu zuen.

Gol horrek markagailura igo eta laster aldageletarako bidea hartu zuten talde biek. Bigarren zatian, Aretxabaletak bere partidua egitera jokatu zuen, zelai-erdian eta atzkaldean lan ona eginaz, erasoaz ahaztu gabe baina



Mondrak asteazkeneko finalerako konbokatu zituen gizonak entrenatzaile eta laguntzaileekin batera

aldi berean gehiegi arduratu gabe. Mondrak, berriz, bigarren zati honetan lehenengoan baino gogo handiagoa jarri zuen jokoa eta ez zen

hain motel ibili. Batzuk atzean egotearen ondorioz eta besteak apurka apurka aurrerantz joateagatik, partiduko bigarren gola etorri zen biga-

rren zatiko hogeitamargarren minutuan, oraingoan Mondraren alde eta Carrillok lortuta. Hortik aurrera, batzu eta besteen saiakerak, baina alperrik, markagailua ez zen gehiago mugituko eta.

Torneoa penaltietako loterian erabaki behar beraz, eta hor atxabaltarrak mondragoetarrak baino zorte edo trebetasun handiagoa izan zuten. Azkenik, Aretxabaleta irabazle.

Partidu hori alde batera, esan behar asteburu honetan emango zaiola hasiera aurtengo liga txapelketari, Mondrak Amurrion jokatu beharko du, asteazkenean baino hobeto espero behar.



Jokaldi arriskutsu gehiegi ez zen ikusi Atxabalpen

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70



PODIUMA

**RAFA AXPE eta
JASONE DIAZ
de GEREÑU
Olimpiadetan**


Euskaldun gutxi izan zuten pasa berri diren Bartzelonako Olimpiadetan parte hartzeko aukera, eta horietatik bi behintzat oso gertukoak: Rafa Axpe aramaioarra eta Jasone Diaz de Gereñu eskoriatzarra.

Olimpiadetan izan izan ziren, baina ezin esan partaidetza arrakastatsua suertatu zitzaienten, biek ateratako emaitzak nahiko eskasak izan ziren eta.

Jakina denez, Rafa Axpek plater tiraketetan parte hartzen du eta orain arte oso emaitza onak lortu izan baditu ere, Bartzelonako zita olimpikoan ezin izan zuen hogeitahamahirugarren postua baino hoberik egin. Lehen egunetik gauzak okertzen hasi zitzaizkion Aramaixoko tiratzaileari eta harrez geroztik ezin izan zuen bururik altxa. "Entrenamenduetan bezala aritu izan banintz - zioen Rafa Axpek - lehiaketa lehenengoan ariean bukatzea lortuko nuen, baina gaizki hasi nintzen eta gero ez nintzen iraketa zuloa estaltzeko gai izan". Hurrengoan ere, Axpek izango du aukerarik goi mailako plater tiraketetan parte hartzeko; izan ere, hemendik lau urtetara, hurrengo Olimpiadeta-

rako oraindik sasoi onean izango da, seguru.

Eta aramaioar olimpikoak aukera berri bat izango duen moduan, Jasone Diaz de Gereñu 25 urtetako eskoriatzarrari ere iritsiko zaizkio goi mailan lehiatzeko txapelketak. Oraindik gaztea da, eskubaloian eta Espainiako taldearekin, atezainaren lekua bete duen neska hau. Egia esan, Jasonek ez zuen erraztasunik arrakasta lortzeko, Estatu- emakumezkoen eskubaloian maila nazioartekoarekin ezin da konparatu eta. Zoritxarrez, kirol honetan ez zen ustekabekorik gertatu eta eskoriatzarra domina barik itzuli zen. Dena dela, handik etorri eta Bidebieta taldeak fitxatu du; ez da abuztuari amaiera emateko modurik txarrena!



◆ **Everest-eko azken berriak**

Jose Ramon Zubizarreta, eta Alberto eta Felix Iñurrategik osatzen duten espedizioa, dagoeneko Everest inguruan dabil. Azken berrien arabera, atxabaltar biak eta eskoriatzarra, hilaren 26an lehen kanpamendura iritsi ziren. Gauzak horrela esan daiteke mendizale gazte hauek aurrerapenez dabilzala, aipatutako egunerako, aurrez beheko kanpamendura iristeko asmoa bait zuten eta ez lehen kanpamendura. Martxa horretan, laster dira gailurrean.

◆ **Arrasate Saskibaloiz taldeak ez du oraindik patrozinatzailerik lortu laster hasiko den denboraldirako, eta ez dirudi lortuko duenik ere. Hori dela eta, taldeko zuzendaritzak, aurtengo denboraldirako jarri diren helburuak bete ahal izateko bazkide kanpaina egiteko asmoa dauka, beste inondik diru-sarrerarik ez dagoenez, behintzat zaletuen laguntza segurutzat jotzen da eta.**

Bi gasteiztar, Jabi Otxoa eta Angel Estevez, Andoni Rementeria elgoibartarra eta Angel Maria Iñarra bergararra dira aurtengo denboraldiari begira Arrasate Saskibaloiz taldeak egin dituen fitxaketak. Fitxaketa berriak kontuan hartuta eta baita iazko jokalaririk gehienak ere, aurtengo denboraldiaren hasieran hartuta, esan behar da arrasatearren helburua mailaz igotzeko lehian sartzea dela.

Denboraldiaren hasiera ofiziala hilaren 26an izango da, Musakolan eta Durangoko Tabirako taldearen aurka, arerio zaila azken urteetan behintzat. Dena dela, egun hortan ezkontzen da Txus Brizuela arrasatearren entrenatzailea, eta posible izango litzateke partidua ostiralera aurreratzea.

Denboraldiaren hasiera ofiziala hilaren 26an izango da, Musakolan eta Durangoko Tabirako taldearen aurka, arerio zaila azken urteetan behintzat. Dena dela, egun hortan ezkontzen da Txus Brizuela arrasatearren entrenatzailea, eta posible izango litzateke partidua ostiralera aurreratzea.

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

Gabriel Elorriaga Dka.

**Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua**

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

GAUZAK




- LARRU ETA LARRUKITAN
UDAZKEN ETA NEGURAKO MODA
- POLTSAK ETA BUSUTERIA
- LARRUZKO JANTZIAK ETA
GERRIKOAK
- KOTOIZKO JANTZIAK

FORUEN PLAZA, 2 TFNOA: 79 90 62 ARRASATE

Zer egin sistemak kontserbatzeko?

Zientzilarien munduak hilero argitaratzen ditu ingurugiroaren kontra etangabe egiten diren erasoek munduaren garapenerako ahalmena arriskutan jartzen dutela frogatzen duten hipotesi eta txosten berriak. Gizadiak bizirik jarraitzeko mehatxua ere sarri aipatzen da. Planeta osoa hartzen duten arazo horien aurrean, herritar soilak urakan bat aurrez-aurre topatzen du.

Planetako ingurugiroa alatzean, teknologia askori esker bizi kalitatea hobetu



ahal izan dugu eta beronen iraupena luzatu. Baina teknologia horien azpiro-dukuen ondorio kaltegarriak jasaten hasi gara.

Ingurugiroaren hondaketa- ren arduradunak gara, eta biktimak aldi berean, eta harriduraz beterik hasi gara ikusten gero eta mundu

komplexu eta ahulagoan bizi garela.

Gizakion ekintzak biosferan sartu dituen aldaketak hain handiak izan direnez, berehala hasi behar da lanean beren ondorio larriak, zientzilarientzat hain beldurgarriak direnak, gure seme-alabei konponbiderik gabeko arazoak planteiatu ez diezaizkieten. Baina, herritarrek zein gauza arrunt egin dezake eguneroko bizitzan ingurugiroaren arazoak konpon-tzen lagunduko dutenak, areagotu ordez? Hor dago kokxa.

Erantzun batzuk

Gizakiak ingurugiroan duen eskuhartzeak eta hartaz baliatu eta gozatzetik sortzen diren ondorioek arazo larriak sortu dituzte. Hala ere eguneroko iharduera denez gero, ondorio horietaz jabetzea zailagotu egiten du. Balio kontserbazionisten hezkuntzak etengabea izan behar du, beti ere gure jokaeraren inplikazio sozial era indibidualak uztartuz. Ingurugiroan giza eskuhartze hori gidatuko duten batzuk aurkeztea da txoko honen helburua.

— Giza iharduerak eragina dute ingurugiroan:

- Gertaerak aztertzea

ohitu, beraiei buruzko iritzirik eman baino lehen.

- Euskal Herria (Eta bereziki norbere herriko ingurunea) ezagutzeko ahaleginak egin. Era berean, bizitzako esparru



desberdinetan (historian, ekonomia, kulturen), izan duen garrantzia ezagutu.

- Baliabide naturalak eta energetikoak mugatuak direla jakin, horrek dituen ondorioez jabetuz eta



irizpide kontserbazionistaz jokatuz.


— Ingurugiroak badu eraginik bizi-kalitatean. Hori eta galtzeko bidean dauden animalia eta landare-motak gordetzeko neurriak hartu behar dira:

- Ingurugiroa babesteko dauden neurriez interesatu eta kritikoki baloratu.

- Herriko edo Euskal Herriko talde ekologista eta naturalisten planteamendu desberdinez kezkatu, beren iharduerak kritikoki baloratu.

- Gaur egungo ingurugiro-arazo larianei arreta eskeini eta ingurune hurbilenean gauzatu.

MAITATUZ MINTZATU



EUSKARA IKASTAROAK 92-93

Maila guztiak: EUSKALDUNTZEN, ALFABETATZEN eta EGA

Eritmoak

Egunero 2 ordu
Egunero 3 ordu
Egunero 4 ordu

Egunero 5 ordu

Iraupena

Iraila-Ekaina
Iraila-Ekaina
Iraila-Abendua
Abendua-Martxo
Martxo-Uztaila
Iraila-Otsaila
Otsaila-Ekaina

Prezioa

21.000 PTA
31.200 PTA
15.500 PTA
15.500 PTA
15.500 PTA
26.000 PTA
26.000 PTA


Bekatzeko sistema izango da.

MATRIKULALDIA
Irailaren 16ra arte

BULEGOKO ORDUTEGIA
Goizez: 9.00-12.00 Arratsaldez: 15.00-18.00

16 URTETIK GORAKOENTZAT

PLAZA MUGATUAK



**Arrasateko
Udal
Euskaltegia**

Arimazuri, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 70 77

◆ **Matrikula zabalik**
Arrasate Musikal-en

Hilaren 10era arte, egu-nero arratsaldeko 6tik 9etara, Arrasateko Musika Eskolan matrikulaketa egiteko aukera izango da. Eskolan izena eman ahal izateko bete beharrezko baldintzak bi dira: Arrasaten enpadronatuta egotea eta gutxienez zortzi urte izatea.

Aurten Arrasate Musikal-
len eskaintzen den aukera honako hau da: kantua, abes-
batza kantua, pianoa, akor-
deoia, kitarra, flauta, oboea,
klarinetea, fagota, saxofoia,
tronpeta, tronpa, tronboia,
tuba, bonbardinoa, fliscor-
noa, biolina, biola, txeloa,
kontrabajoa, perkusioa, ba-
teria eta txistua.

◆ **Justo Garate Arriola beka**

Bergarako Udalak, giza-
zientzien barruan Euskal
Herriari dagokion Soziolo-
gia, Historia eta Euskal Fi-
lologiaren gaietara zuzendua
urteroko Ikerketa Beka bat
sortu du. Iraupena 11 hilabe-
tekoa izango da eta diru-
zenbatekoa 935.000 peze-
takoa. Eskaera idatziak eta
bestelakoak aurkezteko epea
irailean zehar izango da za-
balik. Eskegileen espedien-
tea eta bere kurrikulum-a
hartuko dira kontutan.

Bestalde, gogoratu Arra-
sateko gaitzizenak biltzeko
Udalak ateratako beka eska-
tzeko epea irailaren 11an
bukatzen dela.

Jesusi Etxebarria

20 urte musika erakusten

Orain dela 30 urte
musika erakusten hasi eta
gaur egun musika munduan
gertatzen diren berriztape-
nak ikasiz, punta puntako
teknika erakutsi nahi du
Jesusi.

— **Zergatik eta noiz sartu**
zinen musika munduan?

— Txikia nintzela, lau
urte nituela gutxigorabehe-
ra, gurasoek sartu ninduten
musika munduan eta
ordutik izebak eramaten
ninduen azterketa guztieta-
ra. Nire lehen irakaslea
Justo Munarbe izan zen,
Arrasateko bandako
zuzendaria izan zena. Eta
ondoren, Juanito Arzamen-
direkin jarraitu nuen piano
karrera osoa bukatu arte. 13
urterekin solfeo eta pianoko
hiru urteak aprobatu nituen
Zaragozan. Ondoren,
Donostia eta Bilbon ibili
nintzen, 16 urterekin,
karrera bukatu arte. Gero
Arrasatera etorri eta handik
urte batzutura musika
erakusten hasi nintzen eta
gaur arte.

— **Ordutik asko aldatu**
dira gauzak?

— Beno gizartea bera
aldatu den neurrian umeen
eta euren gurasoen joerak
era aldatzen joan dira.
Musika ikasteaz gain, gaur
egungo umeek beste gauza



asko dute buruan: ingelesa
eta beste hizkuntzak, ballet-
a, klase partikularrak eta
abar. Horren eragina asko
nabaritzen da, horregatik ni
ere astero astero Donosti
joaten naiz musika mun-
dun dauden tendentzi
berriak ezagutzen joateko.
Bestalde aipatzekoa da
jendeak hobby bezala
hartzen du musika, hau da,
denbora pasatzeko edo

tresna konkretu bat gusta-
tzen zaiolako, baina ez
musikatik bizi izateko.

— **Zein da adin egokiena**
musika ikasten hasteko?

— Niretzat txiki txikita-
tik ikasten hastea da onena,
4 urtetik aurrera, baina
gurasoak ez dira horren
alde egoten eta gehienak 6
urtetik aurrera hasten dira.
Hauetaz gain, baditut
beraduago hasten diren
ikasleak ere, 18-24 urtere-
kin adibidez, eta bestalde
nagusiak ere gero eta
gehiago etortzen dira tresna
konkretu bat ikastera:
pianoa, gitarra eta akorde-
oia batez be. .

— **Uste duzu musikaren-**
gan interesa gehituz joango
dela denborarekin?

— Hori ezin da ziurtatu
eta gutxiago jartzen ari
diren lege berriekin.
LOGSE lege berria dela
eta, musika kontserbatorio-
ak gutxitu egingo dira,
Euskal Komunitatean bat
bakarrik geratuz eta gainera
etorkizunean ez dela
azterketarik izango eta
solfoea desagertu egingo
dela esaten da. Horregatik
irakasleok ez dakigu nola
geratuko diren gauzak, ezta
etorkizuna nolakoa izango
den ere. Nik berdin jarrai-
tzeko asmoa dut, legea
indarrean sartu arte.

▼
"Lege berriek
aldaketa asko
ekarriko dute
musika mundura"

ITSASKI
arrandegia

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate 79 98 94

Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32

OHIZKE
Koop. E.

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

ALEMANA FRANTSESA INGELESA
Maila guztiak. Umeak, gazteak, helduak. Goizez eta arratsaldez.
ZATOZ GURE BULEGOETARA!
(Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara)

Aste gazte

— Zein dohain be-
rezkoa izan nahiko ze-
nuke?

— Gaztetasuna.
A. Kraus

Bekak

• Justo Garate Arriola Ikerketa-Beka. Gaia: Euskal Herriari dagozkion Soziologia, Historia eta Euskal Filologia. Eskatzaileak: norbanakoek nahiz lantaldeek eska dezakete, diplomatuak edo maila bereko tituloudunak, 35 urtetik beherakoek. Iraupena: 11 hilabete. Diru-laguntza: 935.000.

• 92-93 ikasturtearen be-
kak (Eskolaurrea, OHO, Hezkuntza Berezia, Helduen Hezkuntza Orokorra, BBB, UBI, LH, Lanbide Moduluak, IEE, Hizkuntza Ikasketak Ikastetxe Ofizialetan, Arte Aplikatu eta Lanbide Artistikoak, Musika). Epea: Urriak 16.



Lanak

• Zumaiako Udalak Bi-
bliotekari lanpostua betetze-
ko deialdia egin du. Titula-
zioa: diplomatu edo karre-
raren lehenengo 3 ikastur-
teak. Epea: Irailak 12.

• Arabako Foru Aldundia
honako lanpostu hauek bete-
tzeko deialdia egin du: As-
ministrazioa Orokorreko
2 teknikari, Ekonomi edo
Enpresa Zientzietan 4 lizen-
tziatu, Goi Mailako Industri
Inginari bat, Baso Inginari
Tekniko bat, Euskara Itzul-
tzaile Laguntzaile bat, 2 la-
borante (Laborategi zerbi-
tzurako), 2 sondista eta
Inprimategi ofizial bat. Epea:
Irailak 21.

Arteleku

• Pintura Tailerra. Ardu-
raduna: Prudencio Irazabal.
Irailaren 15etik Urriaren
15era. Inskripzio-epea: Irailak 7.

Matrikula: 13.000
PTA.

Lehiaketak

• “Sta Isabel” Argazki-
Lehiaketa. Gai librea. Mo-
dalitateak: argazkiak kolo-
retan, txuribeltzean eta dia-
positibak. Sariak: modalita-
te bakoitzeko 3 sari, 35.000
eta 8.000 PTA bitartekoak,
gehi trofeoak. Epea: irailak
12.

• Adaja XI Pintura-Le-
hiaketa. Gai librea. Adaja-
Saria: 2.000.000 PTA. Epai-
mahaikoek hala erabakiz
gero, lehiaketara aurkeztu-
riko hainbat lan erosi ahalko
da, horretarako 3 miloitako
aurrekontua ezarrita dago-
elarik. Epea: Irailak 14.

• “Edebe” I. Haur eta
Gazte Literatur Lehiaketa. 2
modalitate: a) 7-12 urte bi-
tarteko gaztetxoei zuzendu-
riko narrazio-lanak (3
miloitako saria eta miloi

bateko akzesita) eta b) 12
urtetik gorakoei zuzendu-
takoek (4 miloi eta miloi
bateko akzesita) Epea: Irailak
15.

• Enpresak eratzeko VII.
Gazteentzako Ideia-Le-
hiaketa. 18-30 urte bitarteko
gazteei zuzendua. 4 Sari:
800.000, 600.000, 500.000
eta 400.000 PTA eta 300.000
PTAko hainbat akzesit. Epea:
Irailak 22.

• “Fotogazte” Argazki
Lehiaketa. 16-30 urte bitar-
teko gazteei zuzendua. Zuri
beltzez nahiz koloretan. Egile
bakoitzak gutxienez 3 eta
gehienez 5 argazki aurkeztu
behar ditu. 100.000 PTAko
sari bana modalitate bakoit-
zko eta 25.000 PTAko ak-
zesita. Epea: Irailak 30.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

Ford
AMETS
TAILERRAK

HERGO karabanen banatzailea

TXAKURRAK ERAMATEKO
ERREMOLKEAK



Berezano auzoa. OÑATI
Tfnoa: 78 25 92 / 78 19 50



zortzi

GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA


Otalora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24

“EDERTU”
ileapaindegia



San Andres auzoa. 79 04 28

ETXEBIZITZAK

- Urte baterako pisua alokatu nahi dugu. Dei egin 6etatik 10etara 77 02 42 tfnora.
- Munar auzoan pertsona bat behar da pisua osatzeko, bere gela edukiko luke. Pasatu eguardian edo gauez Munarreko Aragoi kaleko 4, 5. eskumatik.
- Etxebizitza berria salgai Zarugalden. Tfnoa: 945 - 25 89 03.
- Donostian logela baten bila dabilen neska bat naiz. Datorren ikasturterako lekurik baldin baduzu, dei eguerdian 79 97 69 tfnora.
- Irailean Ezkaraien etxebizitza alokatzeko dago. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 31 56.
- Deustu inguruan pisu baten lekua behar dut. Tfnoa: 79 34 58. Aitor.
- Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan. Tfnoa: 88 67 23.

LANA

- Zortzigarren mailara arte edo, euskarazko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 39 23.
- Zientzietako klase partikularrak emango nituzke. Tfnoa: 79 25 37.
- Fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak. Abuztuan ere bai. Tfnoa: 77 13 95.
- Andra euskaldunak umeak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 37 68.
- Ekonomiako klase partikularrak emateko norbait behar dut. Tfnoa: 79 32 54. Iñaki.

- Gasteizen umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. Tfnoa: 72 39 73.
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- OHOk klase partikularrak irailan. Tfnoa: 79 34 58.
- Neska euskalduna jatetxe, ostatu eta tabernan lan egiteko prest. Uda osoan herrian egongo naiz. Tfnoa: 79 98 30.
- Zuzendaritzako Idazkaria lanerako eta etxean lanak ordenagailuz pasatzeko prest. Tfnoa: 79 97 30.
- Umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest neska. Tfnoa: 79 97 30.
- Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko neska bat behar da. Euskaraz badaki, hobeto. Tfnoa: 79 89 32.
- Umeak zaintzeko arratsaldetarako neska euskalduna behar da. Tfnoa: 79 69 96.
- Neska edo emakume euskalduna behar da Gasteizen ume bat zaintzeko. Tfnoa: (945) 24 10 44.
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 79 58 80.
- OHOk klase partikularrak ematen dira. Dei egin 79 27 37 tfnora.
- Lorazaintzaz dakien norbait behar da lorategiak garbitu eta zaintzeko. Lan ordutatik kanpo izan daiteke eta hilean 15.000 PTA ordainduko litzaizkioke. Dei egin 79 44 37 tfnora goizeko 10etatik 1.30etara eta Amaiaz galdetu.
- Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsalde 79 72 92 tfnora.

SALEROSKETAK

- Orbea Monkaio karrerista txirriindua salgai. Dei egin 6etatik 9etara 79 23 56 tfnora.
- Ineska markako karru-denda oso egoera onean salgai. Dei egin gauetan 79 94 26 tfnora.
- Ardi-txakur kumeak ditut salgai. Tfnoa: 79 67 76 Raul.
- Razesa markako karreterako txirriindua salgai. Egoera onean dago eta oso prezio interesgarria du. Dei egin eguerdian 79 97 69 tfnora. Iban.
- Opel Corsa SS-X salgai. Berri-berria dago. 76.000 km ditu. Prezioa 380.000 PTA. Tfnoa: 79 55 75.
- Umeentzako seaska eta kalean ibiltzeko karroa salgai. Tfnoa: 79 77 79.
- 9 hilabeteko bideo-joku kontsola (Siega Master System II) salgai. Egoera ezin hobean. Kontsola gehi lau joku prezio onean. Harremanetarako jo (94) 658 33 78 (astebukaeratan).
- Bideo kontsola (Jamiko) + 150 jokuko kaseta + 4 jokuko bi kasete + bi kontrol mando = 15.000 PTA. Dei egin 7etatik aurrera 79 41 91.
- Bost lagunentzako kanping-denda salgai. Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89.
- Ia berria dagoen akordeoi beltza salgai. Tfnoa: 79 80 91 (Gauetan).

DENETARIK

- Lorea Church, ongietorria mundura eta zorionak Begoña eta Mike gurasoei! Sarah eta Iñaki.
- ASA eta Besaideko txirriindulariek, bien artean ekipoa osatuta ere, ez zinatekete abenduan guri aurka egiteko prestatuko!!



ARRASATEN HILDAKOAK



Jose Habas Cano,
abuztuaren 1ean. 78 urte.

Carmen Navarro Ibarguen,
abuztuaren 1ean. 80 urte.

Esteban Gesalaga Illaramendi,
abuztuaren 2an. 76 urte.

Andres Okina Zeziaga,
abuztuaren 5ean. 78 urte.

Prudencio Osinaga Saez de Nanclares,
abuztuaren 6an. 81 urte.

Cleofe San Jose Moran,
abuztuaren 7an. 89 urte.

Juana Arzelai Irazola,
abuztuaren 8an. 80 urte.

Inazio Aranburu Basurtu,
abuztuaren 14an. 72 urte.

Maria Zubillaga Zubia,
abuztuaren 16an. 72 urte.

Sabina Gallastegi Elkorobarrutia,
abuztuaren 16an. 80 urte.

Francisco Bolinaga Uribe,
abuztuaren 27an. 83 urte.

Javiera Ezkibel Alzelai,
abuztuaren 27an. 88 urte.


Maria Reyes Martin Manzebo,
abuztuaren 28an. 62 urte.

Emilio Urzelai Agirre,
abuztuaren 30ean. 50 urte.

Zer nahiago?

Daniel Uribarren "Ante"

Paper eta kartoi biltzailea



- **Papera ala kartoa?** Antzera xamarrekoak dira, biltzeko eta saltzeko ere.
- **Nola definituko zenuke Arrasateko jendea?** Ona, gerra garaian bakarrik zegoen jende txarra.
- **Gustatzen zaizu zure lanbidea?** Bai, asko gainera.
- **Nori egingo zenioke mesede handi bat?** Gehien behar duenari.
- **Janari bat?** Babak asko gustatzen zaizkit.
- **Gaurko gazteen dohain bat?** Ez dakit, ez zaizkit gehiegi gustatzen.
- **Txapela jaztea gustatzen?** Bai, noizean behin eramaten dut.
- **Irakurtzea gustatzen?** Beno, egunkaria irakurtzen dut.
- **Gaixotasun txarra?** Bihotzekoa izan nuen behin eta hori da niretzat txarra.
- **Telebistako programa bat?** Hori bai ez dudala ikusten!
- **Edari bat?** Ura da onena. Lehen alkohol gehiago edaten nuen baina orain okasiotan bakarrik.
- **Gaztetako oroimen asko dituzu?** Bai horixe. Gehien gogoratzen dudana oinez eta ortozik ibiltzen ginela kalean.
- **Telefonotik hitz egitea gustatzen?** Bai, baina ez asko.
- **Kafezalea zara?** Lehen bai, orain ez hainbeste.
- **Arrasate onera ala txarrera doa?** Onera. Denon artean lortu dezakegu hori.
- **Lagun asko duzu?** Arrasatear denak dira nire lagunak, denek ezaguten naute.
- **Etxeko lanetan trebea zara?** Behar dena egitea ez zait inporta behintzat.
- **Zapatak ala zapatilak?** Zapatilak.
- **Etxean berrikuntzak egitea gustatzen zaizu?** Denbora gutxi dela egin ditut eta ez noa berriz egitera.
- **Ondo bizi zara?** Bai, nire ustez bai behintzat.

Bertsotan

OPORREI AGUR!

1
Asko joan dira opor on batzuk atzerrian pasatzera Ingalaterrara, Espora eta beharbada Parisera. Hik ere faltan botako dituk beste askoren antzera bazkal osteko lokuluxka ta oporretako patxara orain berriro lanera goaz burumakur kurratzera.

2
Karridak ere hasi zaizkigu jadanik kotxez betetzen astiro baina bagoaz ohizko bizimodura bueltatzen, oporretako nagikeriak faltan ditugu botatzen momentu onak uste baino lehen zaizkigu denoi pasatzen bizitza ez da kotxeen gisan «martxa atrasean» sartzen.

MAIDER OSA



MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde, 23-2. Ezk.
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90



1920an Arrasateko eskoletan

A

Amador Portillo Ibarluzeak bidali dugu erretratu zahar hau Nafarroako Kortez herrietik. Bera izatez mondragoetarra

da, eta 16 urterekin alde egin zuen hemendik. Argazkian mutikoekin ageri den eskolako maisua bere aita

da. Amador, aitaren azpian dagoena da eta alboetako hiru mutilak bere anaian dira. 1920an atera zen erretratu, eta Amadorrek esan digu gure irakurleen artean erretratu horretako norbait balego, poz handiz jarriko litzatekeela berarekin harremanetan. Beraz, norbait ezagutzen baduzue, atseginez emango genizueke haren helbidea.

Oroitzapen politak kontatu dizki-

gu, eta San Juanetan eta antzeko jaietan herrimin handia izaten ei du. Honela kantatzen zutela esaten du: *"Zezena dator, gaistua diok, arrape-tansuntut, vertan verta ilgozaitut"*.

Besarkada handi bat bidaltzen du eta egunen baten bueltatzeko esperantzaz bizi dela esaten du *"kalistruetan eta uherkapen zehar korrika egin, Metal Ithurrin ura edan eta Kurtze Txikira igotzeko"*.

TTUKUN


Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

URTITXO


Bokatak eta edariak

• URKULUKo urtegian •



3etatik aurrera

Gurutzegrama




Horizontalak

- 1. Arrasateko kalea
- 7. Adats
- 8. Hitz egin
- 11. (Ald) Otzara
- 12. Langile Abertzaleen Batzordea
- 14. Preminger zinegilearen izena
- 15. Larrea
- 17. Nafarroako udala bateko

Bertikalak

- 1. Xuku
- 2. Mahometar izena
- 3. Tresna
- 4. Bular
- 5. Igazkoak
- 6. Tuberkulu jangarriak
- 9. Aisia
- 10. Hegazti mezularia
- 13. (Ald.) Ukapena
- 16. Musika nota



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Lagundu HIES-aren aurkako burrukan! Egin zaitetz HIES EKIMENeko bazkide!

Izen-abizenak
 Helbidea
 Herria Herrialdea Telefonoa

BANKURAKO AGINDUA

..... Banketxeko zuzuendari Jn.
 Helbidea
 Agentziaren zkia Tfnoa
 zkidun kontuaren kargura **hileroko / hiru hileroko / seihileroko / urteroko*** ordainagiriak zorpetzea eskatzen dizut, HIES EKIMENak aukeztuak, PTAko balioak, bestelako agindurik ez den artean.
 Eguna Sinadura


*Ezabatu egoki ez dena. Urtean 2.000 pezeta gutxienez.

BIDALI IRAGARKI HAU HELBIDE HONETARA:

HIES EKIMENA

Arrasate Pasealekua, 3 behea. 79 26 99 telefonoa (erantzungailuaz). 20.500 ARRASATE

Gure aldizkaria jasoko duzue etxean (urtean bi ale gutxienez) eta baita informazioa eta opari txiki bat ere.



Telebegi

Alemaniaiko telebis-
tak ikusterik ez zutenez,
Echtershausengo
udalbatzak herria
kableatzea erabaki zuen.
Dena kableatutakoan
euren telebista propioa
ere egin zezaketela
konturatu ziren. Esan eta
egin. Gaur egun,
Echtershausengo
etxeetan satelite
desberdinetatik jasotako
hamar kanale ikusi ahal
dira. Hamaikagarrena,
sekulako arrakasta
duena, *Tele Echtershau-*
sen da.

Estudioak udale-
txean dauzka. Oraingoz
alkatea, harakina eta
errementaria ari dira
lanean euren denbora
librean. Lehena progra-
mak zuzentzen eta
aurkezten. Bigarrena
kamararekin. Hirugarre-
na teknikari lanetan.
Denetarik ematen dute:
bertako jaiak, ezkontzak
eta baita herritarren
bidaien berri ere.

Herri-telebista honen
kostoa lau milioi t'erdi
pezetakoa izan da.
Ikusle bakoitzari 51.072
pezeta kostatzen zaio
hasierako lotura egitea.
Hortik aurrera, hilero 128
pezeta. *Tele Echtershau-*
sen Europako herri-
telebistatik txikiena
omen da. Harrotasune-
rako beste motibo bat.

JOXE ARANZABAL

Larrugorritan

Egunero, astelehean ezik, 9.20etan.

Programazio berria prestatzen ari gara eta hori dela eta, datorren astean zehar Larrugorritan saioa izango duzue egunero, astelehean ezik. Egunero gai desberdinak tratatuko dira eta horretarako gonbidatuak izango dira bertan. Gainera lehiaketa txiki bat izango da, etxetik erantzun beharko dena.

Larrugorritan

Jaiak, Erreala eta
Athletik, tabakoa eta
bihurrikeriak aztergai.

Egunero
9.20etan

Mondragol

Amurrio- Mondra parti-
duaren laburpena.

Igandea
9.15etan.

Mondra Sport

Kirol munduan mugi-
tzen den programa.

Astelehena
9.20etan

Programazioa

6

IGANDEA

9.15etan *Mondragol*. Amu-
rrio- Mondra partiduaren
laburpena.

8

ASTEARTEA

8,8.30 eta 9etan *Berriak*.
9.20etan *Larrugorritan*: Jaiak
inguruan dauden eritzi des-
berdinak zabalduko dira.
9.50etan *Asteko zinea*:
Lawrence Arabiakoa.

10

OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan *Berriak*.
9.20etan *Larrugorritan*: Ta-
bakoa. Erretzaileen eta
erretzearen kontra daude-
nen eritziak.
9.50etan *Asteko zinea*:
Lawrence Arabiakoa.

7

ASTELEHENA

8,8.30 eta 9etan *Berriak*.
Egunean izandako albis-
teen berri.
9.20etan *Mondra Sport*. Ki-
rol desberdinetako labur-
pena.
9.50etan *Asteko zinea*:
Lawrence Arabiakoa.

9

ASTEAZKENA

8,8.30 eta 9etan *Berriak*.
9.20etan *Larrugorritan*: Athle-
tic-Erreala. Talde bakoitza-
ren zaleak programan izan-
go dira.
9.50etan *Asteko zinea*:
Lawrence Arabiakoa.

11

OSTIRALA


8,8.30 eta 9etan *Berriak*.
9.20etan *Larrugorritan*.
Gaitzakeriak. Umeak
izango dira protagonista.
9.50etan *Asteko zinea*:
Lawrence Arabiakoa.

Gipuzkoa:
bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián